4. De no cumplimentarse adecuadamente, y en el plazo establecido, toda la documentación citada anteriormente, se entenderá que el licitador ha retirado su oferta, procediéndose a exigirle el importe del 3% del presupuesto base de licitación, IVA excluido, (34.254,29 €) en concepto de penalidad, en concepto de penalidad, sin perjuicio de lo establecido en el artículo 71.2.a) de la LCSP, relativo a las prohibiciones de contratar.

5.- Aurreko lerrokadan adierazitako kasuan, dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo lizitatzaileari, eskaintzak sailkatu diren ordenaren arabera, eta HAMAR (10) EGUN BALIODUNEKO epea emango zaio aurreko ataletan xedatutako betebeharrak betetzeko.

5.- En el supuesto señalado en el párrafo anterior, se procederá a recabar la misma documentación al licitador siguiente, por el orden en que hayan quedado clasificadas las ofertas, concediéndole un plazo de DIEZ (10) DÍAS HÁBILES para cumplimentar las obligaciones dispuestas en los apartados anteriores.

38.- KONTRATUA ESLEITZEA.

1.- Kontratazio-organoak, eskatutako dokumentazioa jaso eta hurrengo BOST (5) EGUN BALIODUNEKO epean, kontratua esleituko du. Esleipenak zehaztu eta kontratuaren behin betiko xehetasunak finkatuko ditu.

38.- ADJUDICACIÓN DEL CONTRATO.

1.- El órgano de contratación adjudicará el contrato dentro de los CINCO (5)DIAS HÁBILES siguientes a la recepción de la documentación. La adjudicación concretará y fijará los términos definitivos del contrato.

Nolanahi ere, esleipenak gehienez HAMABOST (15) EGUNEKO epean egin beharko dira, proposamenak ireki eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, esleipen-irizpide bakarra prezioa denean, edo HAMABOST (15) HILABETEKO gehieneko epean,"B" artxibo elektronikoa irekitzen denetik zenbatzen hasita, baldin eta irizpide bat baino gehiago badago edo irizpide bakarra bizi-zikloaren kostua txikiagoa bada.

En todo caso, la adjudicación deberá recaer en el plazo máximo de QUINCE (15) DÍAS a contar desde el siguiente al de apertura de las proposiciones, cuando el único criterio de ad-judicación sea el del precio, o en el plazo máximo de QUINCE (15) MESES a contar desde la apertura del archivo electrónico "B", en caso de una pluralidad e criterios o el del menor coste del ciclo de vida como único criterio.

Aurreko lerrokadan adierazitako epeak HAMABOST (15) EGUN BALIODUNEZ luzatuko dira, eskaintza anormalki baxuetarako prozedura izapidetu behar denean.

Los plazos indicados en el párrafo anterior se ampliarán en QUINCE (15) DÍAS HÁBILES cuando sea necesario tramitar el procedimiento para las ofertas anormalmente bajas.

Esleipena adierazitako epeen barruan egiten ez bada, lizitatzaileek eskubidea izango dute beren proposamena erretiratzeko.

De no producirse la adjudicación dentro de los plazos señalados, los licitadores tendrán derecho a retirar su proposición.

2.- Esleipen-ebazpena arrazoitu egin beharko da, lizitatzaileei jakinaraziko zaie, eta HAMABOST (15) EGUNEKO epean argitaratu beharko da kontratatzailearen profilean.

2.- La resolución de adjudicación deberá ser motivada y se notificará a los licitadores, debiendo ser publicada en el perfil de contratante en el plazo de QUINCE (15) DÍAS.

3.- Jakinarazpenek eta iragarkiak beharrezko informazioa jaso beharko dute esleipen-prozeduran interesatuek esleipen-erabakiaren aurka behar bezala oinarritutako errekurtsoa jarri hala izan dezaten, bereziki SPKLren 151.2 artikuluan eskatutakoa, eta SPKLren 155.3 artikuluko konfidentzialtasun-salbuespena kontuan hartuta.

3.- La notificación y la publicidad referidas deberán contener la información necesaria que permita a los interesados en el procedimiento de adjudicación interponer recurso suficientemente fundado contra la decisión de adjudicación, en particular, la exigida en el artículo 151.2 de la LCSP, sin perjuicio de la excepción de confidencialidad contenida en el artículo 155.3 de la LCSP.

4.- Jakinarazpena bitarteko elektronikoen bidez egingo da, SPKLko D.A.15ean ezarritakoarekin bat etorriz.

4.- La notificación se realizará por medios electrónicos de conformidad con lo establecido en la D.A.15ª de la LCSP.

5.- Kontratazio-organoak betegabetzat jo dezake lehiaketa, hala egokituz gero, Kontrataziomahaiak hala proposatuta, baldin eta baldintza-agirian ageri diren irizpideekin bat etorriz eskaintza edo proposamen onargarririk ez balego.

5.- El Órgano de Contratación podrá declarar desierta la licitación, en su caso, a propuesta de la Mesa de Contratación, cuando no exista ninguna oferta o proposición que sea admisible de acuerdo con los criterios que figuran en el pliego.

39.- KONTRATUA EZ EGITEKO ETA PROZEDURARI UKO EGITEKO ERABAKIA.

39.- DECISIÓN DE NO CELEBRAR EL CONTRATO Y DESISTIMIENTO DEL PROCEDIMIENTO.

Kontratazio-organoak esleipen-prozedurari uko egitea edo kontratua ez esleitzea edo ez egitea erabaki dezake, betiere kontratua formalizatu aurretik eta SPKLren 152. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

El Órgano de Contratación podrá desistir del procedimiento de adjudicación o decidir no adjudicar o celebrar el contrato, siempre antes de la formalización del contrato y de acuerdo con lo previsto en el artículo 152 de la LCSP.

Lehiatzaileei jakinarazten zaienean lehiaketak eragin dizkien gastuen konpentsazioa adieraziko zaie, aldez aurretik audientzia emanda eta haiek justifikatuta, eta gehienez ere lehiaketaren oinarrizko aurrekontua (2.112,35 €) baino milako 1,85(e)raino, inolako kalte-ordain gehigarririk jasotzeko eskubiderik gabe.

En la notificación a los licitadores se indicará la compensación por los gastos que la licitación les haya podido ocasionar, previa audiencia y justificación de aquellos, y hasta un máximo del 1,85 por mil del presupuesto base de licitación (2.112,35 €), sin que proceda indemnización adicional alguna.

40.- KONTRATUA FORMALIZATZEA.

40.- FORMALIZACIÓN DEL CONTRATO.

1. Kontratua lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokitzen den administrazio-dokumentu bat formalizatzearekin batera gauzatuko da. Hala ere, kontratistak kontratua eskritura publiko bihurtzeko eskatu ahal izango du; kasu horretan, gastuak bere kontura izango dira.

1. El contrato se perfeccionará mediante su formalización en documento administrativo que se ajuste con exactitud a las condiciones de la licitación. No obstante, el contratista podrá solicitar que el contrato se eleve a escritura pública, corriendo de su cargo los correspondientes gastos.

Gainerako kasuetan, gehienez ere HAMABOST (15) EGUN BALIODUNEKO epean formalizatu beharko da kontratua, esleipenaren jakinarazpena lizitatzaileei egiten zaienetik zenbatzen hasita.

En los restantes casos, la formalización del contrato deberá efectuarse no más tarde de los QUINCE (15) DIAS HÁBILES siguientes a aquel en que se realice la notificación de la adjudicación a los licitadores.

3.- Esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua adierazitako epean formalizatu ez balitz, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren (BEZ kanpo) % 3, BEZ kanpo, (34.254,29 €) eskatuko zaio zigor gisa. Kopuru hori, lehenik eta behin, behin betiko bermearen aurka ordainduko litzateke, berme hori eratu balitz, SPKLko 71.2.b). artikuluak debekuei buruz ezarritakoari kalterik egin gabe.

3.- Cuando por causas imputables al adjudicatario no se hubiese formalizado el contrato dentro del plazo indicado en la notificación, se le exigirá el importe del 3% del presupuesto base de licitación, IVA excluido, (34.254,29 €) en concepto de penalidad, que se hará efectivo en primer lugar contra la garantía definitiva, si la hubiera constituido y sin perjuicio de lo establecido en el artículo 71.2.b) de la LCSP, relativo a las prohibiciones de contratar.

Kasu horretan, kontratua hurrengo lizitatzaileari esleituko zaio, eskaintzen sailkapen hurrenkerari jarraituz, 37. klausulako dokumentazioa aurkeztu ondoren, lehen aipatutako epeetan.

En este caso, el contrato se adjudicará al siguiente licitador por el orden en que hubieran quedado clasificadas las ofertas, previa presentación de la documentación establecida en la cláusula 37, en los plazos antes señalados.

4.- Kontratuaren formalizazioa, dagokion kontratuarekin batera, kontratua burutu eta gehienez HAMABOST (15) EGUNEKO epean argitaratu beharko da, Udaleko kontratatzailearen profilean.

4.- La formalización del contrato deberá publicarse, junto con el correspondiente contrato, en un plazo no superior a QUINCE (15) DÍAS tras el perfeccionamiento del contrato en el perfil de contratante del Ayuntamiento.

III. TITULUA KONTRATUA GAUZATZEA.

TÍTULO III. EJECUCIÓN DEL CONTRATO.

I.- KAPITULUA. ESLEIPENDUNAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.

CAPÍTULO I.- DERECHOS Y OBLIGACIONES DEL ADJUDICATARIO.

LEHEN ATALA: ESLEIPENDUNARI ORDAINTZEA

SECCIÓN PRIMERA: LOS ABONOS AL ADJUDICATARIO

41.- PREZIOA PAGATZEA.

1.- Esleipendunak eskubidea du, onartutako kontratuarekin, onesten diren kontratu-aldaketekin eta udalak emandako jarraibideekin bat etorriz, benetan eskaintzen dituen prestazioak hitzartutako prezioen arabera ordainduak izateko, eta ordaintzeko modua eta horien maiztasuna baldintza-agiri honen karatularen K.24 apartatuan zehaztutakoak izango dira.

2.- Kontratistak konturako ordainketak jasotzeko eskubidea izango du, kontratuaren exekuzioa prestatzeko eragiketen zenbatekoagatik,baldintza-agiri honen karatularen K.24 apartatuan adierazitako baldintzetan. Ordainketa horiek bermez ziurtatu beharko dira.

41.- PAGO DEL PRECIO

1.- El adjudicatario tiene derecho al abono, con arreglo a los precios convenidos, de las prestaciones que realmente ejecute con sujeción al contrato otorgado, a sus modificaciones aprobadas y a las instrucciones dadas por el ayuntamiento siendo la forma de pago y su periodicidad las especificadas en el apartado K.24 de la carátula de este Pliego.

2.- El contratista podrá percibir abonos a cuenta por el importe de las operaciones preparatorias de la ejecución del contrato cuando estén comprendidas en el objeto del mismo y en las condiciones señaladas en el apartado K.24 de la carátula de este Pliego, debiéndose asegurar los referidos pagos mediante la prestación de garantía.

2.- Esleipendunak egindako fakturak formatu elektronikoan egingo dira, prestazioa eman eta/edo jaso eta HOGEITA HAMAR (30) egun naturaleko epean, eta "Gipuzkoako Fakturen Sarrera-Puntu Orokorraren" (FeSPO) bitartez aurkeztuko dira. Puntu hori Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan dago kokatua, eta hark emango dio zerbitzu hori Udal honi:

(https://www.gfaegoitza.net/SarreraPuntua.)

➢ Sarrera-puntu orokorraren ezaugarriak eta eremua 2014ko abenduaren 1eko 632/2014 Foru Aginduan jasota daude (GAO, 234 zk., 2014-12-9).

➢ Gipuzkoako Foru Aldundiko faktura elektronikoen puntu orokorraren webgunean jasota egongo dira puntu orokorrari atxikitako entitateen zerrenda, araudi aplikagarria, argibide gehiago eta puntu orokorrari eta fakturazio elektronikoari buruzko ohiko kontsultak, baita faktura elektronikoak egiteko programaren doako deskarga ere (ef4ktur).

3.- Behin fakturak erregistratutakoan, kontabilizatu eta zentro kudeatzailera bidaliko dira, zerbitzuburuak adostasuna eman diezaien, eta egintza horrek inplikatuko du zerbitzua kontratuaren baldintzei jarraituz bete dela.

4.- Fakturak pagatzeko epea obrako zertifikazioak edo konformitatea akreditatzen duten dokumentuak onesten diren egunaren hurrengo HOGEITA HAMAR (30) egunetan ezarrita geratzen da.

Kontratistari egindako ordainketek kontura egindako pagamenduen kontzeptua dute, bukaerako neurketan eta likidazioan gertatzen diren zuzenketei lotuak, eta inolaz ere ez dute inplikatzen haietan jasotako obrak onesten eta onartzen direnik azken egiaztagiriaren ondorioz eta kontratuaren likidazioaren kontura.

2.- Las facturas expedidas por el adjudicatario se realizarán en formato electrónico en el plazo de TREINTA (30) días naturales desde la fecha de entrega y/o recepción de la prestación y se presentarán a través del "Punto General de Entrada de Facturas de Gipuzkoa" (PGEFe) ubicado en la Sede electrónica de la Diputación foral de Gipuzkoa, quien prestará dicho servicio a este Ayuntamiento:
(https://www.gfaegoitza.net/SarreraPuntua).

➢ Las características y ámbito del PGEFe están definidas por la Orden Foral nº 632/2014 de 1 de diciembre (B.O.G. nº 234 de 9/12/14).

➢ En la página web del Punto General, incluida en la "Sede electrónic@ de la Diputación Foral", se presentará la relación de entidades adheridas al PGEFe, la normativa aplicable, información ampliada y consultas frecuentes sobre el PGEFe y la facturación electrónica, así como el acceso para la descarga gratuita del programa de elaboración de facturas electrónicas ef4ktur.

3.- Una vez Registradas las facturas, se contabilizaran y se cursarán al centro gestor, al objeto de que puedan ser conformadas por el Jefe de Servicio, implicando dicho acto que el servicio o suministro se ha efectuado de acuerdo con las condiciones contractuales.

4.- El plazo de pago de las facturas queda establecido en los TREINTA (30) días siguientes a la fecha de aprobación de las certificaciones de obra o de los documentos que acrediten la conformidad.

Los abonos al adjudicatario tienen el concepto de pagos a cuenta sujetos a las rectificaciones que se produzcan en lamedición y liquidación final, y sin suponer, en forma alguna, aprobación y recepción de las obras que comprenden a resultas de la certificación final de las obras ejecutadas y a cuenta de la liquidación del contrato.

5.- Kontratuaren finantzaketan Udaleko bi sailek edo gehiagok parte hartzen badute, edo beste erakunde edo organismo batzuekin batera finantzatuta badago, kontratistari, finantzaketan parte hartzen duten alderdi bakoitzeko, kontratuan parte hartzen duten zatian gauzatutako kontratua ordainduko zaio. Karatulako K.15 atalean eta, hala badagokio, karatulako K.24 atalean adierazten den ordainketa-ordenan jasotzen da.

5.- Si en la financiación del contrato participan dos o más departamentos del Ayuntamiento, o está cofinanciado con otras entidades u organismos, a la contratista se le abonará, por cada una de las partes comprometidas en la financiación, el contrato ejecutado en la pro-porción en que participan en el mismo y que se refleja en el apartado K.15 de la carátula y en el orden de abono que en su caso se indique en el apartado K.24 de la carátula

BIGARREN ATALA: ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK

LEHENENGO AZPIATALA: ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK

42.- ESLEIPENDUNARI ESKA DAKIZKIOKEEN BETEBEHARRAK.

1.- Kontratista behartuta dago kontratua gauzatzera, agiri honetan ezarritako klausulei, baldintza teknikoen agiriari zorrotz lotuta, kontratuaren oinarri den proiektua, aplikazio orokorreko araudia eta, betiere, kontratatutako lanen izaerari dagozkion arau teknikoak betez, eta kontratuaren arduradunak kontratua interpretatzeko ematen dizkion jarraibideen arabera, baldin eta azken hau izendatu bada; bestela, kontratazio-organoaren mendeko zerbitzuei dagokie eginkizun hori.

1.- Esleipendunaren betebehar orokorrak ondoko hauek izango dira:

SECCIÓN SEGUNDA: OBLIGACIONES DEL ADJUDICATARIO.

SUBSECCIÓN PRIMERA: OBLIGACIONES GENERALES EXIGIBLES AL ADJUDICATARIO

42.- OBLIGACIONES EXIGIBLES AL ADJUDICATARIO.

1.- El contratista está obligado a ejecutar el contrato con estricta sujeción a las cláusulas estipuladas en este pliego, al pliego de prescripciones técnicas, al proyecto que sirve de base al contrato, a la normativa de general aplicación y,en todo caso, a las reglas técnicas propias de la naturaleza de los trabajos contratados, y de acuerdo a las instrucciones que para su interpretación, diera a la contratista la persona responsable del contrato, en los casos en que se hubiere designado. En otro caso, esta función les corresponderá a los servicios dependientes del órgano de contratación.

1.- Serán obligaciones generales del adjudicatario las siguientes:

● Kontratua betetzeko enpresak egin behar dituen gastu guztiak bere gain hartzea, hala nola gastu orokorrak, finantzakoak, aseguruenak, garraio eta lekualdaketenak, materialak, instalazioak, beren ardurapeko langileen ordainsariak, egiaztapen eta entseguenak, tasak eta era guztietako zergak, BEZ eta kontratua indarrean dagoen bitartean hura betetzeak eragin dezakeen beste edozein, eta eskaintzaren barruan sartutzat joko dira.

● Asunción de todos los gastos que la empresa deba realizar para el cumplimiento del contrato, como son los generales, financieros, de seguros, transportes y desplazamientos, materiales, instalaciones, honorarios del personal a su cargo, de comprobación y ensayo, tasas y toda clase de tributos, el IVA y cualesquiera otros que pudieran derivarse de la ejecución del contrato durante la vigencia del mismo y se entenderán englobados en la oferta.

● Bere izenean kontratuaren xedea gauzatzeko beharrezkoak diren lizentzia edo baimen administratibo guztiak lortzea.

● La obtención a su nombre de cuantas licencias o autorizaciones administrativas sean precisas para la ejecución del objeto del contrato.

● Kontratua behar bezala garatzeko eta betetzeko beharrezkotzat jotzen diren lanak ematea, ordainketa osagarrirako eskubiderik gabe, hala nola lan-bileretara edo informazio-bileretara joatea. Betebehar hori berme-epea amaitu arte mantenduko da.

● Prestación, sin derecho de pago suplementario, los trabajos que se estimen necesarios para el correcto desarrollo y cumplimiento del contrato, tales como asistencia a reuniones de trabajo o informativas. Esta obligación se mantendrá hasta la finalización del plazo de garantía.

2.- Esleipendunak bete beharreko beste betebehar espezifiko batzuk baldintza-agiri honen karatularen K.25 apartatuan zehaztutakoak izango dira, kasu bada.

2.- Otras obligaciones específicas a cumplir por el adjudicatario serán aquellas que se determinen, en su caso, en el apartado K.25 de la carátula de este Pliego.

BIGARREN AZPIATALA: LAN, GIZARTE ETA GARDENTASUN ARLOKO XEDAPENAK

SUBSECCIÓN SEGUNDA: DISPOSICIONES LABORALES, SOCIALES Y DE TRANSPARENCIA

Azpiatal honetan jasotako konpromisoek funtsezko kontratu-obligazioen izaera dute baldintza-agiri honen 55. Klausulan eta SPKLren 211.1.f) artikuluan aurreikusitako ondorioei begira, esleipendunak horiek urratzen dituen kasuan.

Los compromisos recogidos en esta subsección tienen el carácter de obligaciones contractuales esenciales a los efectos previstos en la Cláusula 55, de este Pliego y en artículo 211.1.f) de la LCSP, para el caso de que se incumplan por el adjudicatario.

43.- LAN, GIZARTE, GARDENTASUN ETA EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNAREN ARLOKO BETEBEHARRAK.

43.- OBLIGACIONES LABORALES, SOCIALES, DE TRANSPARENCIA Y EN MATERIA DE IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES.

A. Lan eta gizarte arloko betebeharrak

A. Obligaciones laborales y sociales

1.- Esleipenduna behartuta dago lan eta gizarte-segurantzaren alorrean indarrean dagoen araudia betetzera. Halaber, nahitaez bete beharko ditu desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta horiek gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onesten duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, emakumeen eta gizonen benetako berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legea eta urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuak onetsitako Prebentzio Zerbitzuen Araudia, baita kontratua gauzatu bitartean argitaratzen diren arauak ere.

1.- El adjudicatario está obligado al cumplimiento de la normativa vigente en materia laboral y de seguridad social. Asimismo, está obligado al cumplimiento del Real Decreto Legislativo 1/2013, de 29 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley General de derechos de las personas con discapacidad y de su inclusión social, de la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres, de la Ley 31/1995, de 8 de noviembre, sobre Prevención de Riesgos Laborales, y del Reglamento de los Servicios de Prevención, aprobado por Real Decreto 39/1997, de 17 de enero, así como de las normas que se promulguen durante la ejecución del contrato.

2.- Esleipendunak hiru hilean behin aurkeztu beharko dizkio Udalari fakturatutako lanak egitearekin zerikusi zuzena duten langileen soldatak, PFEZaren atxikipena eta Gizarte Segurantzaren kuotak ordaindu izana justifikatzen duten agiriak.

2.- El adjudicatario trimestralmente deberá presentar al Ayuntamiento los documentos justificativos correspondientes del pago de las cuotas a la Seguridad Social, retención del IRPF y salarios de los trabajadores directamente relacionados con la ejecución de los trabajos objeto de facturación.

3.- Esleipenduna behartuta dago kontratua gauzatzen den bitarte guztian berak adierazitako aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan finkatutako arauak eta baldintzak betetzera, betiere haren aplikazioa legeriaren araberakoa bada.

3.- El adjudicatario está obligado a cumplir durante todo el periodo de ejecución del contrato las normas y condiciones fijadas en el convenio colectivo de aplicación, de aplicación por él indicado, siempre y cuando la aplicación de este se ajuste a la legalidad.

4.- Nolanahi ere, kontratua gauzatzearekin zuzenean lotutako langile guztientzat aplikatzekoak izango diren soldata-oinarriak hitzarmen kolektibo horretan jasotakoak izango dira, inolako bereizketarik egin gabe plantillako langileen, ebentualen edo aldi baterakoen artean, enpresa azpikontratatuetako langileekin edo beste edozein eratako erlazioen kasuan. Lehiaketaren oinarrizko prezioa kalkulatzerakoan, kontuan izan da, besteak beste, betebehar hori.

4.- En todo caso, las bases salariales de aplicación para todos los trabajadores adscritos directamente a la ejecución del contrato, sin distingo alguno entre trabajadores de plantilla, eventuales o temporales, trabajadores de empresas subcontratadas, o cualquier otro tipo de relación, será la contemplada en ese convenio colectivo. El tipo de licitación se ha calculado teniendo en cuenta, entre otras cuestiones, esta obligación.

5.- Esleipenduna laneko ekipoa egonkorra izan dadin saiatuko da, eta, haren osaeran aldaketarik gertatzekotan, puntuala eta arrazoi justifikatuengatik izan dadin, kontratua gauzatzean haren funtzionamendu ona ez gorabeheratzearren, betiere Udalari horren berri emanez.

5.- El adjudicatario procurará que exista estabilidad en el equipo de trabajo, y que las variaciones en su composición sean puntuales y obedezcan a razones justificadas, en orden a no alterar el buen funcionamiento de la ejecución del contrato, informando en todo momento al Ayuntamiento.

9.- Enpresa kontratistak klausula honen arabera bere gain hartutako betebeharrak ez betetzearen ondorioz, erakunde kontratatzailea kondenatzen badute hartatik eratorritako ondorio ekonomikoak bere gain hartzera, betebehar horiek kontratistari jasanaraziko zaizkio, eta, ondorio horietarako, administrazio kontratatzaileak beretzat gordeko du ordaindutako zenbatekoak erabat berreskuratu arte egokiak eta komenigarriak diren edozein ekintza administratibo edo judizial.

9.- Si como consecuencia del incumplimiento por la empresa contratista de las obligaciones asumidas en virtud de esta cláusula, la entidad contratante fuera condenada a asumir las consecuencias económicas que de aquél se derivan, se repercutirán las mismas en la contratista, a cuyos efectos la Administración contratante se reserva el ejercicio de cualesquiera acciones, administrativas o judiciales, que sean adecuadas y convenientes hasta la total recuperación de las cantidades satisfechas.

B. Laneko segurtasun eta osasun esparruko betebeharrak

10.- Enpresa kontratistak bete beharko ditu laneko segurtasun eta arriskuen prebentzioko esparruan indarrean dauden xedapenak, baita hitzarmen kolektibo aplikagarritik eratorritakoak ere.

B. Obligaciones en materia de seguridad y salud en el trabajo

10.- La empresa contratista deberá cumplir con las disposiciones vigentes en materia de seguridad y prevención de riesgos laborales en el trabajo, así como las derivadas del convenio colectivo aplicable.

C. Gardentasunaren gaineko betebeharrak

11.- Gardentasunari, informazioa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 4. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, kontratuaren esleipenduna behartuta dago aipatutako arau horretan, baita udal eremuan xedatzen diren arauetan ere aurreikusitako obligazioak betetzeko beharrezkoa den informazio guztia Udalari ematera, hark aldez aurretik eskatzen dionean.

C. Obligaciones en materia de transparencia

11.- De conformidad con lo establecido en el artículo 4 de la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información y buen gobierno, el adjudicatario del contrato está obligado a suministrar a el Ayuntamiento, previo requerimiento, toda la información necesaria para el cumplimiento de las obligaciones previstas en la citada norma así como en aquellas normas que se dicten en el ámbito municipal.

12.- Lehiatzaileak gardentasun instituzionala eman beharko die lehiaketako, esleipeneko eta exekuzioko prozesutik eratorritako datu guztiei, hura formalizatu arte.

12.- El licitador deberá dar transparencia institucional a todos los datos derivados del proceso de licitación, adjudicación y ejecución hasta su formalización.

D. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko betebeharrak.

D. Obligaciones en materia de igualdad de mujeres y hombres

13.- Enpresa esleipendunak, kontratua gauzatzean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatzeko neurriak ezarri beharko ditu enplegua lortzeari, sailkapen pertsonalari, mailaz igotzeari, iraunkortasunari, prestakuntzari, ordainsariei, laneko kalitateari eta egonkortasunari, lanaldiaren iraupenari eta antolamenduari dagokienez, baita kontratua gauzatzeari atxikitako langileen bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa bateratzen laguntzen duten neurriak ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak ezartzen duenaren arabera.

13.- La empresa adjudicataria, en la ejecución del contrato, deberá establecer medidas que garanticen la igualdad de mujeres y hombres en el acceso al empleo, clasificación personal, promoción, permanencia, formación, retribuciones, calidad y estabilidad laboral, duración y ordenación de la jornada, así como aquellas que favorezcan la conciliación de la vida personal, familiar y laboral del personal adscrito a la ejecución del contrato, conforme establece la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres.

14.- Enpresa esleipendunak hizkera ez-sexista erabili beharko du kontratua gauzatzean sortzen den dokumentazio, publizitate, irudi edo material osoan, eta saihestu egin beharko du emakumeak diskriminatzen dituen edozein irudi edo estereotipo sexista, eta sustatu egin beharko du berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, erantzunkidetasunaren eta genero-rol eta -identitateen pluraltasunaren balioak dituen irudia..

14.- La empresa adjudicataria deberá utilizar un lenguaje no sexista en toda su documentación, publicidad, imagen o material que se genere con motivo de la ejecución del contrato, y deberá evitar cualquier imagen discriminatoria de las mujeres o estereotipos sexistas y fomentar una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad y pluralidad de roles e identidades de género.

15.- Enpresa edo entitate esleipendunak bermatuko du sexu jazarpena eta sexu arrazoiek eragindako jazarpena prebenitzeko behar diren neurriak hartzen direla, hamar langiletik gora arituko diren kontratuetan.

15.- La empresa o entidad adjudicataria garantizará la adopción de medidas para prevenir el acoso sexual y el acoso por razón de sexo en el trabajo en aquellos contratos cuya ejecución requiera más de diez personas trabajadoras.

HIRUGARREN AZPIATALA: HIZKUNTZA ARLOKO KONTSIDERAZIOAK

SUBSECCIÓN TERCERA: CONSIDERACIONES DE TIPO LINGÜÍSTICO

Azpiatal honetan jasotako konpromisoek funtsezko kontratu-obligazioen izaera dute baldintza-agiri honen 55. Klausulan eta SPKLren 211.1.f) artikuluan aurreikusitako ondorioei begira, esleipendunak horiek urratzen dituen kasuan.

Los compromisos recogidos en esta subsección tienen el carácter de obligaciones contractuales esenciales a los efectos previstos en la Cláusula 55, de este Pliego y en artículo 211.1.f) de la LCSP, para el caso de que se incumplan por el adjudicatario.

44.- HIZKUNTZA ARLOKO KONPROMISOAK .

44.- COMPROMISOS LINGÜÍSTICOS.

1.- Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuan, eta horiek garatzen dituzten arauetan, besteak beste, eta hori garatzen duten arauetan erregulatua, besteak beste, Lasarte-Oriako Udalaren Euskararen Erabilera Plana eta Udalak bere hizkuntzazko jarduera arautzeko dituen planen arabera.

1.- Este contrato se halla sujeto al régimen de doble oficialidad lingüística establecido por el Estatuto de Autonomía del País Vasco en su artículo 6° y regulado por la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del euskera, por el Decreto 179/2019 de 19 de noviembre, sobre normalización del uso institucional y administrativo de las lenguas oficiales en las instituciones locales de Euskadi, así como por la normativa que las desarrolla, entre otros, el Plan de Uso del Euskera del Ayuntamiento de Lasarte-Oria y de acuerdo con los planes que tiene el Ayuntamiento para regular su actividad lingüística.

Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan ezarritakoa betetze aldera, EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak, baldintza agiri honetan ezartzen diren hizkuntza baldintzek kontratuaren funtsezko obligazio izaera daukate SPKLren ondorioetarako, eta hortaz, kontratuaren gainerako baldintzak ez betetzeak dituen ondorio berdinak izango ditu: zigor sistema aplikatzea edo kontratua suntsiaraztea.

En cumplimiento con lo establecido en el Decreto 86/1997, de 15 de abril, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi, los requisitos lingüísticos que se recogen en los presentes pliegos de condiciones constituyen una obligación esencial de la LCSP, y su incumplimiento puede tener consecuencias idénticas al del resto de condiciones, es decir, la aplicación del sistema sancionador o la resolución del contrato.

Horrenbestez, kontratu honek nahitaez bete behar duenez hizkuntza-ofizialtasun bikoitzaren araubidea, zerbitzu-hizkuntzak euskara eta gaztelania izango dira.

Por consiguiente, debido a que este contrato deberá cumplir obligatoriamente el régimen de la doble oficialidad lingüística, las lenguas de servicio serán el euskera y el castellano.

2.- Enpresa esleipendunak Lasarte-Oriako Udalaren Kontratu Administratiboetarako Hizkuntza Betebeharrak Arautzen dituen Ordenantzaren arabera jokatuko du, kontratuaren xede diren jarduera guztietan; eta beraz, enpresak administrazioarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak administrazioaren lan-hizkuntzaren araberakoak izango dira.

2.- La empresa adjudicataria actuará conforme a la Ordenanza Reguladora de los Requisitos Lingüísticos para los Contratos Administrativos del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, en todas las actuaciones objeto del contrato; y por tanto las relaciones tanto verbales como escritas por la empresa con la administración se desarrollarán según la lengua de trabajo de la administración.

Enpresa esleipendunak zerbitzua ematerakoan herritarren edo udalaren esku jartzen dituen agiri, txartel, ohar eta gainerako idatziak euskaraz eta gaztelaniaz egongo dira, eta euskarari emango dio lehentasuna.

Eta gainera:

- Proiektuak, txostenak eta bestelako idatzi luzeak euskaraz eta gaztelaniaz emango ditu ezagutzera.

- Udaleko atal elebidunekin ahoz nahiz idatziz dituen harremanak euskaraz egin ahal izateko, Udalarekin harremanak dituzten langileak elebidunak izango dira.

3.- Kasu guztietan herritarren hizkuntza-eskubideak bermatuko dira.

4.- Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza-gaitasunei dagokienez.

Horretarako, Enpresa esleipendunak karatulan eskatutako hizkuntza-gaitasuna duten langileak adskri-batu beharko ditu kontratuari.

Betebehar hori betetzen dela egiaztatzeko, honela jokatuko da:

II. eranskinaren arabera aurkeztutako erantzukizunpeko adierazpenean adierazi bada kontratuari atxiki beharreko langile guztiek badituztela eskatutako hizkuntza-gaitasuna egiaztatzen duten tituluak, baldintza-agiri honen 37. klausulan aurreikusitako epean, gainerako agiriekin batera, kontratua gauzatzeko behar diren lanpostuak betetzeko izendatutako langileen identifikazioa aurkeztu beharko du, zer hizkuntza-gaitasun-maila duten adierazita, eta, hala badagokio, zer egiaztagiri dituzten ere bai.

Los documentos, tarjetas, notas y demás escritos que la empresa adjudicataria ponga a disposición de la ciudadanía o del ayuntamiento en el momento de la prestación del servicio estarán en euskera y castellano, dando prioridad al euskera.

Y, además:

- Los proyectos, informes y otros escritos extensos los extenderá en euskera y castellano.

- Para poder relacionarse tanto oralmente como por escrito con las secciones bilingües del Ayuntamiento en euskera, el personal que se relacione con el Ayuntamiento será bilingüe.

3.- En todos los casos se garantizarán los derechos lingüísticos de la ciudadanía.

4.- En la medida que tienen relación con la Administración y terceros, el personal de la empresa contratada deberá garantizar las condiciones similares que la propia administración debería cumplir, respecto de las competencias lingüísticas.

Para ello, la empresa adjudicataria deberá adscribir al contrato el personal con capacitación lingüística exigida en la carátula.

A fin de verificar el cumplimiento de la ante-dicha obligación, se procederá de la siguiente manera:

Si en la declaración responsable presentada conforme al Anexo II ha declarado estar en posesión de los títulos acreditativos de la competencia lingüística requerida de todo el personal a adscribir al contrato, deberá aportar en el plazo previsto en la cláusula 37 del presente pliego, junto con la restante documentación, la identificación de los trabajadores designados para ocupar los distintos puestos de trabajo necesarios para la ejecución del contrato, con indicación de los niveles de competencia lingüística con los que cuentan, acompañando en su caso los documentos acreditativos que ostentan.

Langileren batek hizkuntza-gaitasunik ez badu edo gaitasun hori egiaztatzen ez bada, Udalak 37. klausulan ezarritako epearen barruan egingo dizkie azterketak edo maila-probak behar dituzten langileei.

En el caso de que alguno de los trabajadores no cuenten con la exigida competencia lingüística o no se acredite la misma, el Ayuntamiento realizará a los trabajadores que lo precisen exámenes o pruebas de nivel dentro del plazo fijado en la cláusula 37 en este pliego.

Langileren batek hizkuntza-gaitasunik ez badu edo gaitasun hori egiaztatzen ez bada, Udalak 37.4. klausulan ezarritako epearen barruan egingo dizkie azterketak edo maila-probak behar dituzten langileei. Eskatutako hizkuntza-baldintzak betetzen dituen hautagairik ez dagoelako bete ezin diren lanpostuak geratzen badira, liziatatzaileak bere eskaintza erretiratu duela ulertuko da, eta, kasu horretan, prozedura bera egingo da hurrengo lizitatzailearekin, eskaintzak sailkatu diren ordenaren arabera.

En el caso de que, en el plazo antedicho, no presente la totalidad documentación acreditativa declarada y requerida, no se presente a las pruebas de nivel la totalidad de los trabajadores que así lo requieran o no superen éstas la totalidad de los trabajadores que se deban someter a las mismas, se entenderá que el licitador ha retirado su oferta, procediéndose en la forma establecida en la cláusula 37.4 de este pliego

Agiri hauen bitartez egiaztatuko da hizkuntza-gaitasuna: Euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuak araututako tituluak eta ziurtagiriak.

Era berean, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren arabera, aintzat hartuko dira euskaraz egindako ikasketa ofizialak, eta kontuan hartuko dira euskara-maila hizkuntzazko titulu eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuetsitako kasuak.

Serán documentos acreditativos de la competencia lingüística: Los títulos y certificados regulados por el Decreto 297/2010, de 9 de noviembre, de convalidación de títulos y certificados acreditativos de conocimientos de euskera, y equiparación con los niveles del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas.

Asímismo, en base al Decreto 47/2012, de 3 de abril, se reconocerán los estudios oficiales realizados en euskera y serán considerados los casos de exención de la acreditación con títulos y certificaciones lingüísticas en euskera.

Agiri honetan langileen hizkuntza-gaitasunari buruz ezartzen diren derrigortasunetatik salbuetsita egongo dira Eusko Jaurlaritzak administrazioan zuzenean lan egiten duten langileentzat zehaztutako kasu berberak, hain zuzen ere, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak zehazten dituenak

Se exceptúan de las obligaciones de competencia lingüística establecidas en este docu-mento los mismos supuestos que los estable-cidos por el Decreto 86/1997, de 15 de abril, por el que se regula el proceso de normaliza-ción del uso del euskera en las administracio-nes públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el personal al servicio de la Ad-ministración directa del Gobierno Vasco.

5.- Zerbitzu bat kontratatzean, subrogatutako langileren bat egonez gero, ez du beste derrigortasunik izango hizkuntza-gaitasuna egiaztatzeko. Hala ere, zerbitzua ematen duen enpresak hizkuntza-prestakuntzako plan bat aurkeztu beharko du, subrogatutako langileek betetzen dituzten lanpostuen hizkuntza-gaitasunak eskura ditzaten. Hori guztia, subrogazioari buruzko legeriak xedatzen duenari kalterik egin gabe.

5.- Al contratar un servicio, si hubiera algún empleado subrogado, no tendrá nueva obligatoriedad para acreditar la competencia lingüística. No obstante, la empresa que preste el servicio tendrá que presentar un plan de formación lingüística para que los empleados subrogados adquieran las capacidades lingüísticas de los puestos que ocupan. Todo ello, sin perjuicio de lo que disponga la legislación sobre subrogación.

6.- Behin kontratazioa eginda enpresa esleipendunak euskara-gaitasuna egiaztaturiko langileren bat aldatuz gero, aldatutako langilearen lekua beteko duenak egiaztatu egin beharko du hemen xedatutako hizkuntza-gaitasuna. Beste horrenbeste egin beharko du subrogazio bidez kontratataturiko langileen ordezkapenen kasuan ere.

6.- Una vez adjudicado el contrato, si alguno de los trabajadores que han acreditado el perfil lingüístico es sustituido por otra persona, dicha persona deberá acreditar el nivel de competencia lingüística aquí establecido. Lo mismo tendrá que hacer en el caso de sustituciones de personal contratado por subrogación.

7.- Eskatutako euskara-gaitasuna egiaztatuko duen lehiatzaile bakar bat ere ez badago, lehiaketa-deialdia hutsik utziko du Udalak. Salbuespen modura, eskatutako euskara-gaitasuna langileen gutxienez %80k betetzen duen lehiatzaileari esleitu ahal izango zaio.

7.- Si no hay ningún licitador que acredite la competencia lingüística solicitada, el Ayuntamiento dejará excepcionalmente vacante la convocatoria de licitación, y podrá adjudicarla a la empresa licitadora en la que, como mínimo, el 80% de los empleados cumpla la competencia lingüística solicitada.

3.- Hizkuntza-betebehar horiek betetzen direla egiaztatzeko jarraipena egitea kontratazio-organoari dagokio, baina kontratazioa eragin duen udal departamentuaren ardura izango da, Euskara Zerbitzuarekin lankidetzan, beharrezkoa den informazioa kontratazio-organoaren eskuetan jartzea. Hizkuntza-betebehar horiek behin eta berriz urratzea nahiko arrazoi izango da kontratua amaiarazteko.

3.- El seguimiento del cumplimiento de estas obligaciones lingüísticas corresponde al órgano de contratación, si bien será el departamento municipal que ha motivado la contratación, en colaboración con el Servicio de Euskera, el encargado de poner a disposición del órgano de contratación la información necesaria. El incumplimiento reiterado de estas obligacio-nes lingüísticas será causa suficiente de extin-ción del contrato.

LAUGARREN AZPIATALA: KONFIDENTZIALTASUNA ETA IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESA

SUBSECCIÓN CUARTA: LA CONFIDENCIALIDAD Y PROTECCIÓN DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL

Azpiatal honetan jasotako konpromisoek funtsezko obligazio kontraktualen izaera dute baldintza-agiri honetako 55. eta 60. klausuletan aurreikusitako ondorioei begira, adjudikatarioak betetzen ez dituen kasurako.
Kontratua sinatzean, kasua hala bada, arlo horretan kontratistari dagozkion obligazioak jasotzen dituen dokumentu xehatu bat sinatuko da.

Los compromisos recogidos en esta subsección tienen el carácter de obligaciones contractuales esenciales a los efectos previstos en las Cláusulas 55 y 60, de este Pliego, para el caso de que se incumplan por el adjudicatario.
A la firma del contrato se firmará, en su caso, documento detallado donde se recojan las obligaciones que en esta materia corresponden al contratista.

Nolanahi ere, Azpiatal honetan zerrendatutako obligazioak ez betetzeak Udalari edo hirugarren pertsonei eragin diezazkiekeen kalte-galeren erantzule izango da adjudikatarioa.

En todo caso, el adjudicatario será responsable de los daños y perjuicios que el incumplimiento de las obligaciones enumeradas en esta SUBSECCIÓN pudieran derivarse para el Ayuntamiento o para terceras personas.

45.- KONFIDENTZIALTASUNAREN BETEBEHARRA.

45.- DEBER DE CONFIDENCIALIDAD.

Konfidentzialtasunari dagokionez, SPKLko 133. artikuluan xedatutakoa izango da aplikatzekoa.

En relación con la confidencialidad será de aplicación lo dispuesto en el artículo 133 de la LCSP.

Udalak adjudikatarioari edo haren zerbitzuko enplegatuei emandako informazioa, datuak edo zehaztapenak, bai eta kontratua gauzatzean eskuratu dituztenak ere, konfidentzialtzat jo beharko dituzte, eta ezingo dira osorik edo partez argitaratu, kopiatu, erabili, laga edo hirugarrenei mailegatu. Betebehar horri eutsiko zaio baldintza-agiri honen karatularen K.19 apartatuan zehazten den epean.

La información, datos o especificaciones facilitadas por el Ayuntamiento al adjudicatario o al personal de su servicio, así como a los que hayan accedido en ejecución del contrato, deberán ser consideradas por éstos como confidenciales, no pudiendo ser objeto, total o parcial, de publicaciones, copia, utilización, cesión o préstamo a terceros. Este deber se mantendrá durante el plazo que se determine, en su caso, en el apartado K.19 de la carátula de este Pliego."

